

ONDARROA / Haurren beldurretan ipuinek duten eragina aztertuko dute

Ipuinek haurren beldurrak ulertzeko eta gainditzeko duten eragina lantzeko ipuin tailerra antolatu du Txomin Agirre Udal Liburutegiak. 0-8 urte bitarteko haurren guraso, hezitzaile, aisialdi monitore eta gaia gustuko duten guztiei zuzendua dago. Eusko Jaurlaritza da tailerron babeslea. Tailerra hiru saiotan banatuko da; maiatzaren 8an, 15ean eta 22an izango dira hitzorduak. Saioak 14:30ean hasiko dira, eta Udal Liburutegian emango dituzte. Lehenengo saioan ipuinen ahalmena aztertuko da, eta beste saio bietan beldurra. Bigarren saioan beldurraren presentzia egungo ipuinetan aztertuko dute, eta azken saioan, beldurra ipuin klasikoetan. Tailerraren arduraduna Juan Carlos Alonso psikologoa izango da.

Tailerraren helburu nagusia ipuinek haurren beldurrak ulertzeko eta gainditzeko duten eraginagaz guraso eta hezitzaileak kontzientziaztea izango da. Bide batez, bai egungo ipuinetan eta baita ipuin klasikoetan ere beldurra lantzeko eran dauden ezberdintasunak azpimarratuko dira, azaldu dute antolatzaileek. Tailerrean izena emateko Txomin Agirre Udal Liburutegira joan daiteke, edo eta 94 683 33 43 telefonora deitu; posta elektronikoz ere bai: libutegia@ondarroakoudala.net